

#EUSKADIBERRIA

EZAGUTZA GIZARTEAN ZABALTZEKO EGITASMOA




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA
BERRIKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE CIENCIA,
UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN





00. AURKIBIDEA

01.	APUSTU ESTRATEGIKOA	04. OR.
------------	---------------------	---------

02.	ZIENTZIAREN PERTZEPZIO SOZIALA	06. OR.
------------	--------------------------------	---------

03.	EZAGUTZAREN GIZARTE-HEDAPENA	10. OR.
------------	------------------------------	---------

	ERANSKINA	15. OR.
--	------------------	---------

JAKINDARI

Kultura Zientifikoaren aldeko Aliantza

ZIENTZIA KLIK

Kultura Zientifikoko Agenda

04.	PROIEKTUA	16. OR.
------------	-----------	---------

05.	AURREKONTUA	20. OR.
------------	-------------	---------

01. APUSTU ESTRATEGIKOA

Desinformazioa areagotzen ari den eta mugimendu populistak nabarmen gorantz egiten ari diren testuinguruan, garrantzitsua da **ezagutzaren gizarte-hedapena indartzea euskal gizartean**, bai eta erraztasunak ematea ere **Eusko Jaurlaritzak sustatutako zientzia- eta berrikuntza-sistema eta haren lorpenak** hobeto uler daitezen. Gizarte baten kultura zientifikoaren aldagaia erabakigarri zaio gizarte horrek eztabaida publikoetan eta prozesu demokratikoetan modu kritikoagoan parte hartzeko duen gaitasunari.

Funtsezkoa da herritarrek konfiantza izatea zientzian, eta, horretarako, aurkikuntza zientifikoak **eskuratzen errazak** direla bermatzeaz gainera, ezinbestekoa da **zientzia espazio publikoan jartzea**, eta ikusgarritasuna ematea gizartean ospea emango dioten ekimenen bidez.

Horregatik, funtsezkoa da administrazio publikoek zientzia eta ezagutza gizarte osoari eskuragarriago egingo dioten proiektuak eta ekimenak sustatzea, eta gizarte hori osatzen duten esparru eta pertsona guztietara iristea. Horixe da, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak eta, bereziki, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak legegintzaldi honetan bere gain hartu duen konpromisoa. Konpromiso horretan, ahalegin berezia egingo da herritarrei zientziaren eta berrikuntzaren euskal sistema hurbiltzeko eta sistema horren aurrerapenak eta lorpenak ezagutarazteko. Dokumentu honetan zehazten den proiektua inplementatzea sailaren apustu estrategikoa da, eta horretarako giza baliabideak eta aurrekontu-baliabideak erabiliko dira.




02. ZIENTZIAREN PERTZEPZIO SOZIALA

"European citizens' knowledge and attitudes towards science and technology"

2025eko otsailean argitaratutako «*European citizens' knowledge and attitudes towards science and technology*»¹ eurobarometroak erakutsi du EBko 10 herritarretatik 8k baino gehiagok (% 83) pentsatzen dutela **zientziaren eta teknologiaren eragin orokorra positiboa dela**. Era berean, inkestakuen bi herenek (% 67) uste dute zientziaren eta teknologiaren ondorioz gure bizitzak errazagoak, osasungarriagoak eta erosoagoak direla.

Herritarrek espero dute zenbait teknologiak —bereziki, energia berriztagarriak (% 87), informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (% 79) eta txertoak eta gaixotasun infekziosoen aurkako borroak (% 77)— eragin positiboa izango dutela datozen 20 urteetan. Emaizak erakusten dute **herritarrek interes handia dutela zientziarekiko eta teknologiarekiko** (% 82), eta **gehiago ikasi nahi dutela haiei buruz** udaletan, museoetan eta liburutegietan (% 54), besteak beste. Inkestakuek osasuna eta medikurak identifika-tzen dituzte, bai eta klima-aldaketaren aurkako borroka ere, ikerketak eta berrikuntzak eragin positibo handiena izan dezaketen arlotzat.

Inkestak erakusten du europarren erdiek baino gehiagok (% 58) aurrerapen zientifikoei buruzko informazio gehiago eskuratzeko gogoia dutela. Nolanahi ere, denbora-faltak (% 40), interes-faltak (% 37) eta zientziaren eta teknologiaren arloko ezagutza-faltak (% 36) oztopo nabarmenak dira oraindik ere zientzia eta teknologiarekiko konpromiso publikoari dagokionez.



%58

Europarren erdiek baino gehiagok aurrerapen zientifikoei buruzko informazio gehiago eskuratzeko gogoia dute.

1. <https://europa.eu/eurobarometer/surveys/detail/3227>

"Encuesta de Percepción Social de la Ciencia y la Tecnología en España"

Espainiako Zientzia eta Teknologiaren Fundazioak (FECYT) 2022an egindako azken *Encuesta de Percepción Social de la Ciencia y la Tecnología en España*² inkestak erakusten duenez, **zortzi pertsonatik batek (% 12,3) berez adierazten du zientzia eta teknologiako gaiekiko interesa**. Proporzio hori ingurumena eta ekologia, hezkuntza eta antzeko gaiekiko interesa erakusten dutenen antzekoa da, eta beste gai batzuen atzetik dago, hala nola bidaiak eta turismoa, edo zinema, artea eta kultura; azken horiekiko interesa asko hazi da pandemiaren ondoren. Interes hori handiagoa da gizonen artean (% 16,7) emakumeen artean baino (% 8,3), eta, oro har, gutxitu egiten da adinean gora egin ahala (% 17, 15-24 urtekoen artean, eta % 7,4, 64 urtetik gorakoen artean). Emaita positiboa bada ere, asko hobetu daiteke.


Inkestak erakusten duenez, halaber, nahiko txikia da herritarrek zientzian parte hartzea-rekin lotutako jardueraren bat egiten duen biztanleriaren ehunekoa. Zientziarekin eta teknologiarekin zerikusia duten jardueretan parte hartzeko dauden eragozpenei buruz galdetutakoan, erdiek baino gehiagok «denbora-falta» (% 53) aipatzen dute, eta heren bat inguruk «zientzia eta teknologiari buruzko jardueren edo ekitaldien eskaintzarik eza», «ezagutza-falta» eta «interes-falta» aipatzen ditu. Komunitate zientifikoarekiko konfiantzari erreparatuz gero, herritar gehienek (% 81,1) zientzialariak beren arloan aditutzat hartzen dituztela nabarmentzen da. Gehiengoaren iritziz, interes komunagatik ikertzen dute (% 65,6) eta arau eta prozedura estandarren arabera egiten dute lan (% 53,6).

"Confianza en la ciencia y Populismo científico en España"

Fundazio horrek berak oraintsu argitaratu du *"Confianza en la ciencia y Populismo científico en España"*³ txostena, eta, bertan, Espainian aitzindaria den inkesta baten emaitzak jasotzen ditu. Inkesta horrek Interneteko ia mila erabiltzailek zientziarekin lotuta dituzten jarrera populistak aztertzen ditu. Nazioarteko ikerketa⁴ da, eta zientziarekiko konfiantzari eta populismo zientifikoari eragiten dioten faktoreak aztertu ditu 68 herrialdetan. Zientziarekin lotutako populismoa antagonismotzat kontzeptualizatzen da: «jende arruntak» eta sen onak elite akademikoaren eta ezagutza zientifikoaren aurrean dutena. Populismo zientifikoak elite akademikoak kritikatzeko, zalantzan jartzen die ikerketa zientifikoan erabakiak hartzeko autoritatea, eta iradokitzen du haien egia epistemikorako asmoak jendearen sen ona baino apalagoak direla.

Txostenak nabarmentzen duenez, inkestatutako biztanleriaren % 3,6 populismo-eskalaren balio maximoetan dago, % 71,4 eskalaren beheko erdian dago eta % 25, berriz, tarteko puntuan egongo litzateke. Populismo zientifikoaren batez besteko mailak antzekoak dira gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat, hiri-habitatetan eta landa-habitatetan bizi diren pertsonentzat. Populismo zientifikoaren mailaren eta adinaren artean ere ez dirudi loturarik dagoenik. Hezkuntzari dagokionez, unibertsitate-ikasketak dituztenek puntuazio apur bat baxuagoa dute populismo eskalan bigarren mailako ikasketak dituztenek baino. Bestalde, jarrera ideologikoa ez dago populismo zientifikoaren mailarekin lotuta. Nolanahi ere, harreman positiboa dago erlijiozaletasun-mailaren eta populismo zientifikoaren mailaren artean.

ZIENTZIAREKIKO POPULISMO-MAILAK



2. <https://comunicacioncientifica.fecyt.es/percepcion>

3. <https://fecyt.es/publicaciones/confianza-en-la-ciencia-y-populismo-cientifico-en-espana>

4. TISP (Trust in Science and Science-Related Populism, TISP, ingelesez) proiektuaren barruan dago.

Proiektua munduko 240 ikertzaile baino gehiago hartzen duen partzuergo batek osatzen du.


Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Gizarte Pertzepzioari buruzko Azterketa Kualitatiboa

Euskadin, 2021ean argitaratutako *Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Gizarte Pertzepzioari buruzko Azterketa Kualitatiboa*⁵ lanak honako ondorio hauek jaso zituen:

1. Herritarrek, bai ikasleek bai biztanleria orokorrak, **ukaezintzat jotzen dute zientziak, teknologiak eta berrikuntzak** gizartearen garapen positiboari eta hazkundeari egiten dioten **ekarpena**.
2. Herritar gehienek identifikatzen ditu **Eusko Jaurlaritzak** zientzia, teknologia eta berrikuntzarekiko duen **konpromisoa erakusten duten gako** asko.
3. Herritarrek **ez dute zientzia, teknologia eta berrikuntzaren euskal sarea ia ezagutzen**, nahiz eta haren balioari buruzko iritzi positiboak izan.
4. Zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloko EAEko politikari buruzko informazioa gardenagoa izatearen falta igartzen da, «onura beti berberak jasotzen dutelako» susmoa ezabatzeko.

5. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_21kua1/eu_def/adjuntos/21kua1_eu.pdf





03.

EZAGUTZAREN GIZARTE-HEDAPENA

«Ezagutzaren gizarte-hedapena» adierazpenak jardueren multzo zabal bati egiten dio erreferentzia, eta jarduera horien helburua da ezagutza –normalean, maila handi samarrekoa– herritar guztiei hurbiltzea. Dibulgazio zientifikoa da, agian, gizarte-hedapen horren modurik garbiena eta ondoen ezarria.

Jardueren multzoa **diziplina anitzekoa** da; izan ere, askotariko praktikak jasotzen ditu —zientzia-jaialdiak, hitzaldiak eta konferentziak, kafe zientifikoak, erakusketak, ikuskizun artistikoak, prentsa-artikuluak, podcastak eta ikus-entzunezko programak, besteak beste—, eta zenbait kanal edo bitarteko erabil daitezke hainbat espazio fisiko edo birtualetan. Jarduera horietan, askotariko profesionalek parte hartzen dute: komunitate zientifikokoez edo hezkuntzakoez gain, baita kazetaritzakoak, komunikaziokoak edo kultur kudeaketakoak ere.

Ekintza horiek zeregin erabakigarria dute zientzia gizarteari irekitzeko, izan ere:

- **jakin-mina piztu dezakete**
- **ezagutzarekiko interesa areagotu dezakete**
- **alfabetatze zientifikoa hobetu dezakete**
- **informatutako erabakiak hartzea sustatu dezakete**

Egungo egoera

Open Science edo Zientzia Irekiaren estrategien barruan, European gero eta handiagoa da publikoaren –herritarren– *public engagement* edo “bi noranzkoko” inplikazioa sustatzeko joera. Hori komunitate zientifikoaren eta gizartearen elkarriketaren bidez gauzatzen da, bai eta herritarrek ikerketa-prozesuaren fase ezberdinetan parte hartzea bultzatzen duten herritarren zientzia-ekimenei bidez ere.

Euskadin

Horizon Europe programa, aurreko Horizon 2020 programaren antzera, funtsezko tresna da EBren I+G+b politikak gauzatzeko. ERA programa horizontala (Parte-hartzea handitzea eta Europako Ikerketa Esparrua indartzea) jasotzen du. Programa horren helburua da ezagutzaren sorkuntza, zirkulazio eta erabilera askeari onura aterako dion I+G arloko Europako espazio komun bat ezartzea. Askotariko jarduerak jasotzen ditu, besteak beste, **herritarren zientzia eta** I+G arloko emaitzetarako **sarbide irekia** sustatzea. Metodologia interaktiboago eta kolaboratiboagoetatik abiatuta herritarrak inplikatze apustu horrekin batera, **komunikazio zientifikoa hobetzeko eta irisgarritasun eta inklusiboagoa** egiteko apustu berritua egin da.


Estatu-mailan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Legea berriki egokitzea mugarri garrantzitsua izan da kultura zientifikoa sustatzaren eta zientziarako sarbide librea izatearen alde. Arau-arloko aurrerapen horren ondorioz, **azpiprograma bat zehaztu da kultura zientifikoa eta herritarrek I+G+b arloan parte-hartzea sustatzeko**. Azpiprograma hori CSIC eta Espainiako Zientzia eta Teknologia Fundazioa (FECYT) buru dituen Ikerketa eta Berrikuntza Zientifiko eta Teknikorako Estatuko Planaren (PEICTI) barruan jaso da.

EAEn, *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko* (ZTBES) eragile gehien-gehienek ekintzak garatzen dituzte sortzen duten ezagutza gizarteari hurbiltzeko eta ikasleek zientziarekiko duten interesa sustatzeko. Gainera, saretik kanpoko ekimen pribatuko zenbait erakundek (fundazioak edo elkarteak) lan esanguratsua egiten dute arlo horretan, gure lurraldeko kultur zentro eta museo askok ere egiten duten moduan.

Eusko Jaurlaritzak eta, bereziki, aurreko Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzak ezagutza gizarteari eskualdatzea eta STEAM hezkuntza sustatzea bultzatu ditu, batez ere *STEAM Euskadi Hezkuntza Estrategiaren* eta *2023-2026 Unibertsitate Sistemaren Planaren* bitartez. Plan horren zazpigarren helburuak (Gizarte-eragina) honako hau adierazten du: «Euskal gizartearekiko enpresa- eta teknologia-loturan funtsezko sistema izatea, Zientziaren eta Teknologiaren balioa zabalduz, etorkizuneko bokazioak eta espezializazio handiko talentuak sortuz, Euskadirentzat hazkunde ekonomikoa eta gizarte-ongizatea ekarriko dutenak».

Bestalde, Ikerbasque fundazioaren 2025-2028 Plan Estrategiko berriak «Zientziak gizartean duen eragina areagotzea» jasotzen du bere jarduketaren eremuen artean. Helburu du 2028rako, bikaintasunezko ikerketako zentrozen (BERC) eta ikerketa kooperatiboko zentrozen (CIC) % 100ek zientzia gizarteratzeko estrategia ezartzea, Ikerbasquerekin koordinatuta.

OPEN SCIENCE



Datuak: eu-citizen.science

ERAGILEEN DIBULGAZIO-LANA



Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Eragileak

EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMA

Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) ahalegin garrantzitsua egiten du ezagutza gizarteratzeko eta kultura zientifikoa sustatzeko, Ikerkuntza Gizartean Zabaltzeko Zuzendaritzaren bidez; izan ere, zuzendaritza horrek ekitaldi globalak antolatzen ditu, hala nola Zientziaren Astea eta Ikertzaileen Gaua, bai eta irismen txikiagoko beste jarduera batzuk ere. Gainera, zeregin hori garatzeko berariazko katedra bat du —**Kultura Zientifikoko Katedra** (KZK)—, eta publiko guztientzako dibulgazio-jarduera zabala eta askotarikoa garatzen du.

Bestalde, Deustuko Unibertsitateak zenbait ekimen jarri ditu abian —*Deusto Social Impact Briefing* eta *Deusto Social Impact Storytellings*— bere ikertzaileek sortutako gizarte-eragina ezagutarazteko, eta Mondragon Unibertsitateak Open Access plataforma bat garatu berri du, bere ekoizpen zientifikoa gizarteari zabaltzeko.

BIKINTASUNEZKO IKERKETA-ZENTROAK

Eusko Jaurlaritzak laguntzen dituen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) bikintasunezko ikerketa-zentroen artean, nabarmentzekoa da Donostia International Physics Center (**DIPC**) erakundearen lana; izan ere, apustu estrategikoa egin du eta zientzia gizartera hurbiltzeko planteamendu egituratua garatu du. Zentro horretako ekimenetako batzuek, Passion for Knowledge egitasmoak kasurako, beste zentro batzuekiko trakzio argia eragin dute.

Oro har, ikerketa-zentroen hedapen-jarduerak dinamika hau du ezaugarri:

- **Dibulgazio-ekimenak** garatzen dituzte, nazioarteko egun seinalatuekin bat etorriz, hala nola Burmuinaren Astea (BCBL), BCAM-Naukas Pi eguna ospatzeko, Neurozientziaren Eguna (Achucarro) eta Biofisikaren Astea (CIC Biomagune), besteak beste.
- Beste eragile batzuek antolatutako **ekitaldi handiagoekin bat egiten** dute: Zientzia Astea, Ikertzaileen Gaua, Emakumeak Zientzian, Pint of Science, Naukas, Barlab, besteak beste.
- **Bisita gidatuak** antolatzen dituzte, gehienbat bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasleei zuzenduak, eta **STEAM hezkuntza-proiektuetan** parte hartzen dute, hala nola Elhuyar Zientzia Azokan eta STEAM topaketetan.
- **Komunikazio zientifikoko ekintza** asko egiten dituzte —mintegiak eta blog edo aldizkarietako argitalpenak, nagusiki—, publiko espezializatuagoari zuzenduta.

BESTE ERAGILE BATZUK

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean (ZTBES) erregistratutako zientzia, teknologia eta berrikuntza ezagutarazteko eragileen artean, honako hauek nabarmendu behar dira:



→ **Elhuyar Fundazioak** kultura zientifikoa sustatzen du dibulgazio-edukiak sortuz hainbat produktutan (Elhuyar aldizkaria, dokumentalak, irratseaioak, telebista, podcasta) eta erreferentziazko komunikabideekin lankidetzan arituz, EitBrekin, besteak beste. Zientzia eta teknologiaren arloko euskarazko dibulgazioari ematen dion sariari esker, gure lurraldean lan horretan ari diren pertsonak publikoki aitortzen dira.

→ **Aranzadi Zientzia Elkartek** herritarren zientziaren arloko proiektuak eta plataformak garatzen ditu, eta aitzindari dira gure lurraldean.

→ **Udako Euskal Unibertsitateak** (UEU) komunitate zientifiko gazteari ematen dio hitza, eta beren tesi eta ikerketekin sortzen duten ezagutza hedatzeko formula eta bide berriak bultzatzen ditu. Euskal Herriko akademikoen artxibo digitala ere badauka.

→ **Eusko Ikaskuntzak** gizarte-eztabaida eta herritarren parte-hartzea sustatzen ditu, eta gogoeta egiteko eta ezagutza gizarteratzeko espazioak bultzatzen ditu. Azpimarratzekoa da bere lana, ikertzaileei eta, oro har, akademikoei hainbat sari ematen baitizkie.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Saretik kanpo dauden Eragileak

JAKIUNDE

2019tik onura publikoko erakunde gisa aitortuta, Akademiaren xedea Zientziak, Arteak eta Letrak sustatzea eta zabaltzea da. 2007az geroztik, hitzaldiak eta hausnarketak antolatzen ditu bere kide ospetsuekin, eta jakintza diziplina arteko ikuspegitik zabaltzeko hainbat proiektu ere egiten ditu.

HERRITARREN EKIMENEZ SORTUTAKO ELKARTEAK

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Saretik (ZTBES) kanpo, eta tokian toki etorrita, herritarren ekimenez sortutako elkarteak daude. Elkarte horien lanak inguru hurbileko kultura zientifikoa sustatzen jartzen du arreta, eta, batez ere, hitzaldizikloen bidez egiten dute hori.

Hona hemen horietako batzuk: Zientziaren Giltzak Elkartea, Logos Elkartea, Lemniskata taldea, ZarautzOn, Debako Kultur Elkartea, Gerediaga Elkartea, Círculo Escéptico, besteak beste.

KULTUR ZENTROAK, MUSEOAK ETA INTERPRETAZIO-ZENTROAK

Azkenik, nabarmentzekoa da EAEk ekipamendu-mapa zabala duela, eta ekipamendu horiek kultura zientifikoko lan garrantzitsua egiten dutela hitzaldien, erakusketetara bisita gidatuen eta publiko desberdinentzako hezkuntza-tailerren bidez. Besteak beste: **kultur zentroak** —hala nola Tabakalera, Azkuna Zentroa, Bidebarrieta Liburutegia, Clara Campoamor Zentro Zibikoa—, **museoak** —Eureka Zientzia Museoa, Bergarako Laboratoriuma, Donostiako Aquariuma, San Telmo Museoa, Oiasso Museoa, Arkeologi Museoa, Itsasmuseum, Natur Zientzien Museoa, Hontza Museoa edo Nautilus—, eta **interpretazio-zentroak** —Ekoetxeak, Birdlife Center, Geoparkea, Parketxeak, BBK Klima Abentura—.



Egungo ikuspegiak eta erronkak

Aipatutako eragileek egindako jardueren azterketa sakonagoak interes handiko hainbat ondorio erakusten ditu. Ondoren, analisi horren emaitzak laburbiltzen dira, gaur egun erabiltzen den ikuspegi nagusian zentratuta, eta, horietan oinarrituta, hainbat hobekuntza-arlo proposatzen dira, eta horietan kontzentratu beharko lirateke ahaleginak.

PUBLIKOA

Egungo ikuspegia: publikoen ikuspegitik, nabarmendu behar da ekimen gehienak publiko orokorarentzat direla; hala ere, gero eta erakunde gehiagok eskaintzen dute programazio berezia eskola- eta familia-publikoarentzat.

Nolanahi ere, ekimen gehienak irekiak diren arren, egiaztatu da gizarteko pertsona batzuek beste batzuek baino zailtasun gehiago dituztela ezagutza zientifikoa eskuratzeko.

Erronkak: normalean parte hartzen ez duten pertsonak sartzeko eta inplikatzeko metodoak garatu eta baliatu behar dira, eta, horretarako, dauden oztopoak gainditu.

FORMATOA

Egungo ikuspegia: erabilitako dibulgazio-formatuei dagokienez, hitzaldi-, solasaldi- eta elkarrizketa-zikloak dira ohikoenak.

Erakunde batzuek formatu berriak probatu dituzte, hala nola bakarrizketak, bertso-zientzia, zineforumak, podcastak eta sare sozialetako lehiaketak, baina berritzeko tartea badago oraindik.

Erronkak: metodologia eta formatu berriak sortzea, errazago elkar eragiteko eta herri-tarrei protagonismo handiagoa emateko, herritarren zientziaren arloko ekimenen bidez.



KOKAPENA

Eguno ikuspegia: jarduera gehienak hiru lurraldeetako hiriburuetan egiten dira, eta bereziki Bilbon edo Donostian.

Nabarmentzekoa da azken urteetan zenbait elkarte eta udal kultura zientifikoko jarduerak programatzen hasi direla beren udalerrietan, baina lurralde edo eskualde askotara ez dira iritsi oraindik, Bizkaian eta Araban bereziki.

Erronkak: ezagutza zabaltzeko jardueren programazioa euskal udalerri gehiagotan zabaltzea, modu koordinatuan eta eskura dauden dibulgazio-baliabideak erabiliz.

EREMUA

Eguno ikuspegia: jarduera gutxi egiten dira espazio publiko irekian; hitzaldi-aretoak edo erakusketa-eremuak dira espazio-tipologia ohikoenak.

Erronkak: dibulgazio-eskaintza espazio publiko irekietan zabaltzea.

EGUTEGIA

Eguno ikuspegia: jardueren aldizkakotasunari dagokionez, denetarik dago. Egun bakarreko ekimenak daude, bai eta astebeteen kontzentratutako ekimenak ere. Zenbait hilabetetan luzatzea da ohikoena, astean edo hilabeteen behin gauzatzen diren zikloen bitartez.

Dibulgazio-jarduera gehienak ikasturte osoan banatuta daude, oporraldietan izan ezik.

Erronkak: eragile guztien artean agenda partekatua sortzea, bai eta ondo banatutako egutegia ere, oporraldietako dibulgazio-jarduerak barne hartzen dituen.





Jakindari

KULTURA ZIENTIFIKOAREN ALDEKO ALIANTZA
ALIANZA POR LA CULTURA CIENTÍFICA



Zertarako nahi dugu JAKINDARI?

- Ezagutzaren gizarte-hedapenarekin konprometituta dauden erakunde eta eragile guztien ahaleginak batzeko.
- Gure lurraldeko txoko guztietara iristeko eta publikoarengana modu inklusiboan hurbiltzeko gai izateko.
- Herriarrei desinformazioaren eta manipulazioaren aurrean funtsezko tresnak emateko.
- Gizarte kultu, kritiko eta demokratikoago bat izateko.

Zer lortuko dugu JAKINDARI?

- Koordinazio eta sinergia handiagoa: eragile bakoitzaren indarguneak eta gaitasunak aprobetxatuko ditugu.
- Inpaktu handiagoa: elkarrekin publiko zabalago eta anitzago batengana iritsi ahal izango gara, modu intentsiboagoan eta eraginkorragoan.
- Eraginkortasun handiagoa: baliabideak eta ezagutzak partekatuko ditugu, kostuak murriztuko ditugu eta ahaleginak bikoiztea saihestuko dugu.



ZientziaKLIK Jakindari Kultura Zientifikoaren aldeko Aliantzaren erakusleihoa da.

ZientziaKLIKen gure inguruan programatutako kultura zientifikoko ekitaldi guztiak aurkituko dituzu.

ZientziaKLIKen zure zentroak edo elkarteak antolatutako jarduerak partekatu ahal izango dituzu, gizarte osoak ikus ditzan.

Sartu zaitez JAKINDARIen sarean!

JAKINDARIekin?

- **Berrikuntza eta sormena:** lankidetzak ideia berriak eta irtenbide berritzaileak sortzeko aukera emango digu.
- **Ikusgarritasun handiagoa:** gizartean presentzia handiagoa eta posizionamendu argiagoa lortuko dugu.

Zer abantaila izango ditu JAKINDARIko kide izateak?

- Zure ekintzak ikusgai jarri ahal izango dituzu **ZIENTZIAKLI**Ken, herritarrei zuzendutako web atarian, gurean antolatzen diren kultura zientifikoko ekitaldien eskaintza osoarekin.
- **URTEKO FOROAN** parte hartu ahal izango duzu ezagutza eta jardunbide egokiak trukatzeko, lortutako mugarrak ospatzeaz eta ideiak eta lankidetzak proposatzeaz gain.
- **LAGUNTZA DEIALDI** baten bidez eskuratu ahal izango dituzu laguntza ekonomikoak, ezagutza gizartean zabaltzeko proiektuak kofinantzatzeko.
- Ezagutza gizartean zabaltzeko proiektu onenen **SARIEN** lehiaketan parte hartu ahal izango duzu.
- Eta proposatu nahi dituzunak...

ZientziaKLIKen honakoa aurkituko duzu:

- agenda bateratua
- bilaketa geolokalizatua
- albisteak argitaratzeko euskarria
- newsletter harpidetza-sistema

ZientziaKLIK kolaboratiboa, erabilerraza eta irisgarria da.

www.zientziaklik.euskadi.eus

04. PROIEKTUA

Zientziaren gizarte-pertzepzioari buruzko azterlanetatik, ezagutzaren hedapenaren egungo egoeraren azterketatik eta EAEko zientzia-dibulgazioko jardueren azterketatik lortutako emaitzetatik abiatuta, Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak beharrezkotzat jotzen du ahalegin gehigarri bat egitea zientzia eta ezagutza eremu publikoan kokatzeko.

Diagnostiko horri erantzunez, sailak gizartean ezagutzaren hedapena indartzea proposatzen du, helburu horretarako berariaz diseinatutako zenbait ekintza bilduko dituen proiektu baten bidez.

Proiektuaren Helburuak

Proiektu honen xedea da ondorengo irudian laburbiltzen diren eta elkarren artean osagarri diren bost helburu lortzea:

**GAI ZIENTIFIKOEN HEDAPEN
INKLUSIBOA SUSTATZEA, ETA
EZAGUTZA ESKURATZEKO ETA GOZATZEKO
GIZARTE-ARRAKALAK MURRITZEA.**


**GIZARTEAK EZAGUTZA SORTZEKO
ETA HEDATZEKO PROZESUETAN
PARTE HARTZEA BULTZATZEA.**

**ZIENTZIA ESPAZIO
PUBLIKOAN JARTZEA,
IKUSGARRITASUNA
EMATEKO ETA BERE OSPEA
ETA GIZARTEAN DUEN
BEGIRUNEA
AREAGOTZEKO.**

**KULTURA ZIENTIFIKOKO HANDITZEA,
ETA KULTURAREN ARLOKOAK DIREN
ETA GIZARTE-INKPACTUA DUTEN
ZIENTZIA-GAIAK GIZARTEARI
HURBILTZEA.**

**EUSKARAREN ERABILERA
HANDIAGOA BULTZATZEA
EZAGUTZA GIZARTEAN ZABALTZEKO
EGITEN DIREN JARDUERETAN.**





Proiektuaren Arloak

Legealdi honetan, sailak lau arlotako jarduerak bultzatuko ditu, aurreikusitako helburuak lortzeko asmoz. Irudi honetan, planteamenduaren eskema bat aurkezten da:

ESPARRUAREN GARAPENA

1. LEGE BERRIA
2. PLAN BERRITUAK
3. SAILAREN DEIALDIETAKO PIZGARRIAK
4. EMAITZEN AZTERKETA

ERAGILEAK INDARTZEA

5. IKASTEKO KOMUNITATEA
6. ORIENTAZIOA ETA PRESTAKUNTZA
7. FINANTZAKETA-LERROA

ELKARLANA BULTZATZEA

8. KULTURA ZIENTIFIKOAREN ALDEKO ALIANTZA
9. URTEKO FOROA
10. PROGRAMAZIO KOORDINATUA
11. LAGUNTZA-DEIALDIA
12. SARIAK

EKIMEN BERRIAK

13. PLATAFORMA DIGITALA
14. EZAGUTZAREN JAIALDIA
15. KOMUNIKAZIO-KANPAINAK
16. DIBULGAZIO-PRODUKTUAK
17. ESPERIENTZIA PILOTUAK

Ekintzak

Jarraian, arlo horietako bakoitzean aurreikusitako ekintzak aurkezten dira. Proiektu irekia da, eta beharrian eta inguruabarren arabera egokitzen joango da. Hortaz, ez da baztertzen ekintza berriak sartu ahal izatea edo jarraian proposatzen direnetako batzuk ordezkatzeara.

ESPARRUAREN GARAPENA

Jarraian zehazten diren ekintzak ezagutzaren gizarte-zabalkundea politika publikoaren funtsezko elementu bihurtzeko esparrua eta testuingurua garatzera bideratuta daude.

1. EKINTZA

Sailak legealdian bultzatuko duen arau-esparru berriaren oinarritzko elementu gisa ezagutzaren gizarte-zabalkundea sartzeara.

2. EKINTZA

Ezagutzaren gizarte-zabalkundea sailaren jarduketara-lerroetan sartzeara.

3. EKINTZA

Ezagutzaren gizarte-zabalkundea sustatzea, sailaren deialdietan baloratu beharreko elementu gisa.

4. EKINTZA

EAEko ezagutzaren gizarte-zabalkundeko ekintzen garapena eta emaitzak aztertzea, politikak eta programak hobetzeko asmoz.

ERAGILEAK INDARTZEA

Sailak hainbat ekintza proposatzen ditu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen gaitasunak indartzeko, komunikazioan eta zientzia-dibulgazioan egiten dituzten ahaleginek gizartean eragin handiagoa izan dezaten.

5. EKINTZA

Ikerketa-zentroetan eta unibertsitateetan gizarte-komunikazioko eta -zabalkundeko arduradunek osatutako praktika-komunitate bat sustatzea, esperientziak partekatzeko, elkarri laguntza emateko eta baterako ekimenak garatzeko.

6. EKINTZA

Sareko eragileei behar duten laguntza eta orientazioa ematea, ezagutza gizartean komunikatzeko eta hedatzeko estrategia indartu dezaten. Ekintza horren barruan sar daiteke gidak/eskuliburuak egitea, adituek aholkularitza ematea eta prestakuntzak garatzea, besteak beste.

7. EKINTZA

Berariazko finantzaketa-lerro bat sortzea, ZTBESko eragileen, eta, bereziki, unibertsitate, BERC eta CICetako ikerketa-egituren ezagutza hedatzeko proiektuak edo ezagutza gizarteari transferitzeko ekintzak egiten laguntzeko.

ELKARLANA BULTZATZEA

Sailak hainbat erakunderen arteko lankidetza bultzatuko du, ezagutza zientifikoa espazio publikora modu koordinatu eta eraginkorrean hurbiltzeko, haien ahalegina ikusaraziz eta aitortuz. Horretarako, honako ekintza hauek proposatzen dira:

8. EKINTZA

Jakindari, EAEko kultura zientifikoaren al-deko erakundeen aliantza, sustatzea eta kudeatzea.

9. EKINTZA

Urteroko topaketa bat antolatzea, aliantzako kideek ezagutza eta jardunbide ego-kiak trukatu ahal izan ditzaten, lortutako mugarrak ospa ditzaten eta elkarlanean heldu beharreko erronka berriak planteatzen.

10. EKINTZA

Udal-mailako ekitaldiak sustatzea. EAEko lurralde osorako programazio koordinatua sustatzea, batez ere kanpoko espazio pu-blikoetan.

11. EKINTZA

Laguntzen deialdia egitea, aliantzako erakundeek ezagutza gizartean hedatzeko proiektuen garapena sustatzeko, honako helburu honekin:

- Proiektu berriak abiaraztea edo irismen handiagoa izateko moduko proiektuak sendotzea.
- «Proiektu bereziak» sustatzea, zientzia zaurgarritasun-egoeran dauden edo behar handiko eremuetakoak diren kole-ktiboetara hurbiltzen dutenak.
- Herritarren zientziaren arloko «proiektu esperimentalak» sustatzea, herritarrek ezagutza sortzen eta hedatzen zuzenean parte hartu dezaten.

12. EKINTZA

Aliantzako erakunde batek sailaren lagun-tzarekin garatutako ezagutza hedatzeko ekimen berritzaile onenentzako sari bat ematea urtero.

EKIMEN BERRIAK

Sailak kanpaina eta esperientzia berritzaileak bultzatuko ditu espazio publikoan zientziaren presentzia areagotzeko eta euskal zientzia- eta berrikuntza-sistemak gizartean duen ospea sendotzeko.

13. EKINTZA

ZientziaKLIK plataforma digitala sortzea, aliantzako eragileen dibulgazio-jardueren eskaintza jasoko duena, publikoa errazago erakartzeko eta elkarlanari mesede egiteko.

14. EKINTZA

Gizarte-komunikazioko kanpainak egitea komunikabideetan, zientziak espazio publi-koa nabarmen hartzen duela eta ezagutza sortzen eta hedatzen dutenen lana aitort-zen dela bermatzeko.

15. EKINTZA

Espazio publikoan jaialdi edo azokak sus-tatzea, herritarrei gai estrategikoak hurbil-tzeko, aliantzako eragileen eta herritarren arteko elkarrekintzaren alde egingo duten formatu eta jardueren bidez, jai-giroan.

16. EKINTZA

Dibulgazio-produktu berriak garatzea eta testatzea, hala nola podcastak edo ikus-entzunezko lanak, kultura zientifikoa hainbat bidetatik sustatzeko.

17. EKINTZA

Dibulgazioko esperientzia pilotuak garatzea eta sistematizatzea, publiko berriengana formatu berritzaileekin iristeko, jardunbide egoki hedagarri edo ereduagarri gisa balio dezaten.

05. AURREKONTUA

Proiektu honen aurrekontu-zuzkidura ia **7,4 milioi** eurokoa izango da proiektua gauzatzeko aldian (2025-2028).

Ondorengo taulan, aurretiko aurrekontuaren laburpena ageri da:

EKINTZA-ARLOAK	AURREKONTUA
Esparruaren garapena	90.000 €
Eragileak indartzea	950.000 €
Elkarlana bultzatzea	4.070.000 €
Ekimen berriak	2.278.000 €
GUZTIRA	7.388.000 €

Taulan jasotako kopuruak begiz jotakoak dira eta behin betiko definizioa aurrekontu-erabilgarritasunaren eta proiektu honetan aurreikusitako ildoen eta jardueren berrikuspen sistematikoaren arabera izango da.

